

MINTZOLA

Ahoa Bete Hots jardunaldiak

2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

OHARRA: Jon Sarasuak eman zuen hitzaldia *Hiztunpolisa*, berak idatzi liburuan bertsolaritzaren transmisioari zein euskararen berreskuratzeari buruz adierazitako ideien jorratzea izan zituen oinarri. Ez genion eskatuko liburuan idatzitakoak berriz idazteko. Bai ordea, gaiari buruzko gogoetatxo bat. Eta halaxe du egin. Mila esker Jon.

Bertsolaritzaren transmisioaz

Ahozkoak omen gara (nik *kantuzkoak* esango nuke zehatzago, ahozkoak Teleberriak, klase magistralak, parlamentuak, sexu praktika batzuk eta haiei buruzko tertuliak baitira, adibidez), eta hala garenez gero (beste arrazoirik ez dago tartean), gutxi itsatsi nuen paperean Ahoa Bete Hots jardunaldietan nire aldetik egindako jardunetik. Oroitidazkia egitekotan oroimenetik egin behar tira, eta hor, Joseba Tapiak eta Antton Lukuk esandakoak etortzen zaizkit gehiago.

Transmisioaz jarduteko begiak itxi besterik ez dugu egin behar aro honetako euskal hiztunok. Inurritegira norbaitek ura bota zuelako-edo inurri guztiak aztoratuta martxan jarri ziren garaian, hizkuntza herrena transmititu zitzaigun, eta kankak samaldan, eta dantzak, eta kirolean ere pilota txikiagoa gurea (eta gogorragoa, jakina), eta istorio batzuk, eta jaiak. Inurritasun horretan, bertso mundukook transmisio kontziente eta adimentsu baten emaitza gara, eta beharbada orain (biba gu) transmisio are adimentsuago baten eragile. Atera litezke horretatik irakaspak batzuk.

Euskaradunok irabazi behar genuen itsasoa gero eta ozeano zabalagoetan nahasita dabilen honetan, galderak. Galdera, ea bertso eskolek bertso akademiatik dutena tailerrago egin dezakegun. Ea tailerrean bat-bateko kantua baino zabalagoa den kultur fluxuaren transmisioa egin litekeen. Ea komunitateak bere jenio artistiko plural txikia jarri behar badu libertimenduaren eta ospakuntzaren zerbitzuan, hori senez egiteak eskatzen dituen soka guztiak nola landu. Ea bakoitzak berea lantzeaz gain, badagoen aukerarik sokaren zati bat uzteko besteekin korapiloak egiteko. Bertsoa bada soka horietako bat, ea zer ikasi bere azken urteetako transmisioetik, ea zer desikasi bide horretatik, eta ea zer entzun herri kulturgintza zabalagoaren durundietatik. Ertzetatik datozen horietatik, berriz ere.

Jon Sarasua